



Bertso-eskolen eguna ospatzera gatoz, aurretik laugarren urtez jarraian. Gipuzkoa osoko bertsozale gazteenen bilgune bihurtu da dagoeneko egun hau, eta honek duen garrantzia azpimarragarria da benetan. Haur eta gazteak bilduko gara bertsoaren inguruan, zaletasun berezi honen bueltan. Bertso-eskoletako ikasleak. Zer du bertso-eskolak berezi, gaur egun hainbeste ikasle izateko?



"bertsolaritzak bizitzarako balore asko erakutsi dit"



Bertso-eskolan ez da bertsolari izaten ikasten, ez da bertso-kantuan ikasten. Hori ere lortzen da kasu askotan, baina bertso-eskolan mundua ikuspegi desberdin batetik begiratzen ikasten da. Hizkuntzarekin jolas egiten dugu, hitzak berekin duen baliorik nagusia zein den ikusten dugu: komunikatzen ikasten dugu bertso-eskolan. Mundua ulertzen, eta mundu hori bera azaltzen, bertsoak berekin eskaintzen duen ispilutik. Ezagutzen dugu tradizioa, eta aldiro zerbait berria sortzen saiatzen gara bertsoan. Atzera begiratu eta aurrera jotzen ahalegintzen gara, eta zergatik ez, lortu ere egiten dugu.



"formena, irudimena eta jendaturakotatuna lantzeko, bertso-eskola oso lagungarria egiten zait"



Arazoi hauek dira bertso-eskolan biltzearen atzean daudenak. Haur eta gazteentzat kantatzen, elkar-zirikatzeta eta sentitzen dutena konplexurik gabe azaltzen laguntzen dien asteroko plaza bat izateak badu bere garrantzia, esan dugun bezala; horregatik jarraitzen dugu animoz beterik, lanean, Bertso-Eskolen Eguna bezalako bilguneek urte osoko jardunari pizgarri bat jar diezaioten!



"Antzerkian inprobisatzeko erraztatuna ematen dit bertso-eskolak"